

## **BAKARDADEAN ETA ETSIPENAK JOTA**

Lasarte (2000.12.30)

Joan den uztailaren 22ko diario vasco-k Javier Ezeizabarrenak sinatutako artikulua argitaratu zuen. Europako Ekonomi Elkartek antxoaren arrantza-kuoten inguruan hartu berria zuen ebazpen bati buruzko artikulua, hain zuzen ere. Artikulu egilearen iritziz, erabakiak frantses eta portugaldarrei on egiten dien bitartean, hau dio gure arrantzaleez: "gobernu zentralak, arrantzaleek egindako eskaerak aurrera ateratzeko inolako ahaleginik egin ez duenez, babesik gabe eta ezer ezin eginik geratu dira Epaimahai Komunitarioaren erabakia dela eta. Honek, zera dio hartutako erabakia arrazoitzeko: eskatzaileek ez omen dute inolako legetasun edo legitimitaterik; eta ondorioz, ez dira ezta gure instituzio zentralak hain gutxi kezkatzen dituen arazoa sakontzen hasi ere egin".

Hau da, laburbildurik, artikulua egilearen iritzia. Gure aldetik, berriz, zera adierazi nahi genuke: gure arrantzaleen ordezkariak, eskale bailiran Madril, Paris edo Bruselara behin eta berriz bisitan joan beharrean, gure elkarteko partaide egin daitezela, dagokien kuota ordainduta, jakina. Ez dugu inolako zalantzarik, erabaki hori askoz onuragarriagoa izango dela beraientzat, eta zer esanik ez, beraiek ordezkatzeko dituztela esaten duten arrantzaleentzat.